

# EUSKAL ESTROFEZ

Juan Mari Lekuona

## 1. SARRERAKO OHARKIZUNAK

### 1.1. MUGAKETAK

1.1.1. Estrofa ez da *modulu metriko bakarra*: hor daude euskal tradizioko baladenak, bihurkidunak, tiradak, formula periodotuak, bertso li-break eta abar (1)

1.1.2. *Estrofei buruz bakarrik* hitzegiten dugu hemen, moduluetan ugariak edo direlako eta nolerebait garrantzitsuenak.

1.1.3. *Ia ezinezkoa da estrofa denak edo gehienak hartuko lituzkeen sailkapen bat egitea*: asko dira generoak, ereduak eta aldaerak.

1.1.4. *Hurbilketa bat emango dugu*, beste literatur barrutietan egin ohi denez. Aipatuko ditugu eredurik erabilienak eta ardatz gertatzen direnak.

### 1.2. LANMETODOA

1.2.1. *Eskema metrikoetatik hasi beharra dago*, berauen arteko konparaketak eginez, estrofen sistemek marka ditzaten berdintasunak eta desberdintasunak, eta gainerako nabardura bereziak.

1.2.2. *Ifarraldeko eta Hegoaldekoen artean dagoen diferentziaz* ohar-tzea ere ezinbestekoa da estrofak idazteko eta izendatzeko unean. Bi sistemok oso kontuan hartzekoak dira euskal estrofagintzaz preseski hitze-gin nahi bada, nahiz eta hurbilketa bat ikus daitekeen azken urteotan, bereziki bertsolaritzan.

---

(1) J.M. LEKUONA, "Kontapoesiaren modulu metrikoak Hegoaldeko usarioan", *Euskera*, 36 (1991, 825-852. or.)

1.2.3. *Bertsolaritzan estrofa gintzari buruz esan denak eta egin denak* kontuan hartu beharrekoa dirudi, indarrean dagoen estrofa gintza ia bakarra delako, bertako sistema delako, asko landu dena prasi mailan, eta ez gutxi teoria mailan ere.

1.2.4. Bertsolaritzak agortzen ez duenez gaiaren eremua, *kontuan hartu beharrekoak lirateke, orobat, gainerako generoak eta hemen sarturik dauden erdal modulu metrikoak*, hala nola “soneto”, “seguidilla”, eta hainbat estrofa-mota.

## 2. ESTROFAREN OSAGAI AIPAGARRIENAK

2.1. *Zenbat bertso-lerro hartzen dituen eredu jakin batek.*

2.2. Bertso-lerroen *silaba-kopurua eta etenak*

2.3. Bertso-lerroak *isosilabikoak edo anisosilabikoak diren.*

2.4. *Monorrimoak edo plurirrimoak diren puntuen aldetik.*

2.5. Etenaldiek *hemistikio desberdinak edo berdinak* egiten dituzten.

2.6. *Hausturarik* dagoen bertso-lerroen erregulartasunean, ereduak aldatuz.

2.7. *Errepikarik* nahiz *bihurkirik* sartzen den estrofa-barruan, edo fono-estilistikaren amorez sarturiko beste espresibitate poetikoak.

## 3. ESTROFAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK ETA IZENDAPENA

3.1. Bi gauza dira egiaz bata eta bestea. Ezaugarri teknikoak denak markatu behar dira estrofa jakin bat deskribatzekoan. Izendatzea, ordea, egin daiteke —eta hala egiten da gainera— ezaugarri tekniko batekin edo birekin.

3.2. Izendatzean, hiztegiaren erabilgarritasuna da kontuan hartu beharrekoa, asko lagundu dezaketelarik usuarioak, (hala nola bertsolaritzak), ezaugarri tekniko nabarmenena aipatzeak, edota moduluaren edozein nabardura historikoz asmamen onaz baliatzeak.

## I. MULTZOA

### HEMISTIKIO DESBERDINAK

1. *Ezaugarri teknikoak*: lerro jakinak, isosilabikoak puntutik puntura, hemistikio desberdinak eta monorrimoak.

2. *Izendatzea*: hemistikio-lerroen kopuruak agintzen du hegoaldean, laukoa, seikoa, zortzikoa, hamarrekota eta abar, lerro-kopuruz markatuz estrofa-mota honen ezaugarri nagusia. Eta hemendik hartuz ere horrelako ereduena izena.

Ifarraldekoek, ordea, beste idazkera bat darabiltenez estrofa idazterakoan, puntuen kopurua dute gogoan, bi, hiru, lau, bost eta abar puntukoa den.

Bigarren osagai bat ere hartzen da gogoan estrofa izendatzean: hemistikio bakoitzeko silaben kopurua Hegoaldean, 10-/ 8A (handia), 8-/ 7A (ertaina), 7-/ 6A (txikia) eta abar konbinaketak aipatuz, egiten da. Eta Ifarraldean ere berdintsu, nahiz eta silabak puntutik puntura hartu, 18 (10+8)A (handia), 15 (8+7)A (ertaina), 13 (7+6)A (txikia) izendatu.

3. *Eredu erabiliak*: hemen aipatzen ditugun eredueta ez daude denak, baina gehienak bai; eta ematen dira zentzuak hemen ez dauden ereduak ere non kokatu eta nola aztertu jakiteko.

## 1. MOLDE HANDIA

### 1.1. TESTUAK

#### a. *Hegoaldeko idazkera*

“Mutil kozkor bat itxuaurreko  
zubela aldamenian,  
gizon buru-soil, bizar-zuri bat  
bi makuluren gañian,  
kale ertzian ikusi nuen  
inora ezin joanian;  
ta bera nor zan jakin nayian  
inguratu nintzarian...  
limosnatxo bat eskatu zidan  
Jainkoaren izenian” (2)

---

(2) I. UNZURRUNZAGA, *Pedro Mari Otañoren bertsoak*, (Limosnatxo bat), in “Kuliska Sorta”, 31-32. z.z., Zarautz, 1959, 55. or.

“Zenbat errezo egin izan det  
nere denboran elizan;  
te pozik nago ikusirikan  
pakian nola gabiltzan.  
Ni naizen bezain kobarderikan  
inor ezin leike izan,  
semiak gerra ez joateatik  
mutilzar gelditu nintzan” (3)

“Jose Joakin Izuelako  
auspez lurrean jarririk,  
bizkarra ere makurtu zaizu  
bakarkasunez beterik;  
admiraturik aurkitutzen naiz  
ez dezulako andrerik” (4)

“Harmen hartzera deitu ninduen  
gazterik zorte etsaiak;  
urrundu nintzen, herri alderat  
itzuliz usu begiak” (5)

b. *Ifarraldeko idazkera*

“Mutil koxkor bat itxu-aurreko zubela aldamenian,  
gizon buru-soil, bizar-zuri bat bi makuluren gañian,  
kale ertzian ikusi nuen inora ezin joanian;  
ta bera nor zan jakin nayian inguratu nintzarian...  
limosnatxo bat eskatu zidan Jainkoaren izenian”

“Zenbat errezo egin izan det nere denboran elizan;  
ta pozik nago ikusirikan pakian nola gabiltzan.  
Ni naizen bezain kobarderikan inor ezin leike izan,  
semiak gerra ez joateatik mutilzar gelditu nintzan”

“Jose Joakin Izuelako auspez lurrean jarririk,  
bizkarra ere makurtu zaizu bakartasunez beterik;  
admiraturik aurkitutzen naiz ez dezulako andrerik”

“Harmen hartzera deitu ninduen gazterik zorte etsaiak;  
urrundu nintzen, herri alderat itzuliz usu begiak”

---

(3) A. ZAVALA, *Tirrita (Bizitza ta bat-bateko bertsoak)*, in “Auspoa”, 18-19. zz., 222. or.

(4) ID., *Pastor Izuela (1780-1873)*,..., in “Auspoa”, 106. z., 79. or.

(5) A. SALABERRI, “Solferinoko itsua”, in *Kantu, kanta, khantore*, “Kordelieren irar-kolan”, Baiona, 1967, 254. or. Laburdura: KKK.

## 1.2. ESKEMA METRIKOAK

a. *Hegoaldeko usarioa*

10-	10-	10-	10-
8a	8a	8a	8a
10-	10-	10-	10-
8a	8a	8a	8a
10-	10-	10-	
8a	8a	8a	
10-	10-		
8a	8a		
10-			
8a			

a. *Hegoaldeko izendatzea*

- Hamarreko handia
- Zortziko handia
- Seiko handia
- Lauko handia

b. *Ifarraldeko idazkera*

18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A
18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A
18 (10+8)A	18 (10+8)A	18 (10+8)A	
18 (10+8)A	18 (10+8)A		
18 (10+8)A			

b. *Ifarraldeko izendatzea*

- Bost puntuko handia
- Lau puntuko handia
- Hiru puntuko handia
- Bi puntuko handia

## 2. MOLDE ERTAINA (6)

### 2.1. TESTUAK

#### a. *Hegoaldeko idazkera*

“Gai horrek badu mamia  
baldin ez banago gor,  
hainbat jende gizaseme  
ikusten ari naiz hor;  
ogiaz gain gizonari  
anitz gauza zaio zor,  
bestela mundu hontara  
hobe ez gaitezen sor;  
ogiakin justizia  
behar dugu derrigor;  
hau sinisten ez duenik  
ba al-da hemen inor?” (7)

“Argi azkorrian jinik  
ene arresekila,  
beti beha, entzun nahiz  
nunbaitik zure botza.  
Ardiak nun utzi tüzü?  
Zerentako errada  
nigarrez ikhusten deizüt  
zure begi ederra?” (8)

“Hasperena habilua  
maitenaren borthala:  
habil eta erran izok  
nik igorten haidala;  
bihotzian sart hakio  
hura eni bezala” (9)

“Kazkarotak badakite  
trikun-trakun egiten,

---

(6) “Ertaina” izena hartu dugu: A. ZATARAIN, “Euskerazko bertsoerak”, *Euskaltzaindia, Iker 2, Piarres Lafitteri omenaldia*, 1983, 689. eta hur. or.

(7) X. AMURIZA, *Bertsolari txapelketa Nagusia*, Donostia, 1980.01.06, in “Auspoa”, 141. z., 80. or.

(8) KKK, “Agota”, 133. or.

(9) A. ZATARAIN, *ibid.*, 690. or.

oilõnuak ebatsita  
sasipean gordetzen” (10)

b. *Ifarraldeko idazkera*

“Gai horrek badu mamia baldin ezbanago gor,  
hainbat jende gizaseme ikusten ari naiz hor;  
ogiaz gain gizonari anitz gauza zaio zor,  
bestela mundu hontara hobe ez gaitzen sor;  
ogiakini justizia behar dugu derrigor;  
hau sinisten ez duenik ba al-da hemen inor?”

“Argi azkorrian jinik ene arresekila,  
beti beha entzun nahiz nunbaitik zure botza:  
Ardiak nun utzi tüzü? Zerentako errada  
nigarrez ikusten deizüt zure begi ederra?”

“Hasperena habilua maitenaren borthala:  
habil eta erran izok nik igorten haidala;  
bihotzian sart hakio hura eni bezala”

“Kazkarotak badakite trikun-trakun egiten,  
oilõnoak ebatsita sasipean gordetzen”

## 2.2. ESKEMA METRIKOAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

8-	8-	8-	8-
7a	7a	7a	7a
8-	8-	8-	8-
7a	7a	7a	7a
8-	8-	8-	
7a	7a	7a	
8-	8-		
7a	7a		
8-			
7a			
8-			
7a			

---

(10) ID., ibid.

a. *Hegoaldeko izendatzea*

- Hamabiko ertaina
- Zortziko ertaina
- Seiko ertaina
- Lauko ertaina

b. *Ifarraldeko idazkera*

15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A
15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A
15 (8+7)A	15 (8+7)A	15 (8+7)A	
15 (8+7)A	15 (8+7)A		
15 (8+7)A			
15 (8+7)A			

b. *Ifarraldeko izendatzea*

- Sei puntuko ertaina
- Lau puntuko ertaina
- Hiru puntuko ertaina
- Bi puntuko ertaina

3. **MOLDE TXIKIA**3.1. **TESTUAK**a. *Hegoaldeko idazkera*

“Lagundurikan danoi  
gugatik hil zanak,  
seme, hazi zaitugu  
aitak eta amak,  
beti zure gidari  
izandu geranak.  
Orain gurutze honen  
oinean esanak



ondo gogoan hartu  
biaituzu danak” (11)

“Gernikako Arbola  
da bedeinkatua,  
euskaldunen artean  
gutziz maitatua.  
Eman da zabal zazu  
munduan frutua;  
adoratzen zaigutu  
Arbola santua” (12)

“Oles ezkonberriak,  
Yaungoikoak gau hun:  
toberaketan gatoz  
bost edo sei lagun  
zuen baimenarekin  
kantatu dezagun” (13)

“Zazpi Euskal-Herriek  
bat egin dezagun;  
guziak bethi-bethi  
gauden gu euskaldun” (14)

b. *Ifarraldeko idazkera*

“Lagundurikan danoi gugatik hil zanak,  
seme, hazi zaitugu aitak eta amak,  
beti zure gidari izandu geranak.  
Orain gurutze honen oinean esanak  
ondo gogoan hartu biauizuz danak”

“Gernikako Arbola da bedeinkatua,  
euskaldunen artean gutziz maitatua.  
Eman da zabal zazu munduan frutua;  
adoratzen zaigutu Arbola santua”

(11) I. UNZURRUNZAGA, *ibid.*, “Aita-semeak”, 67. or.

(12) J.J. BELAUSTEGI, *Iparragireren olerki-eresien bilduma ta erti-iritzi laburra*, “Koldobika Rodriguez”, Oñati, 1933, 10. or.

(13) A. ZATARAIN, *ibid.*

(14) KKK, “Agur eta ohore Euskal Herrian”, 7. or.

“Oles ezkonberriak, Yaungoikoak gau hun:  
toberaketan gatoz bost edo sei lagun  
zuen baimenarekin kantatu dezagun”

“Zazpi Euskal-Herriek bat egin dezagun;  
guziak bethi-bethi gauden gu euskaldun”

### 3.2. ESKEMA METRIKOAK

#### a. *Hegoaldeko idazkera*

7-	7-	7-	7-
6a	6a	6a	6a
7-	7-	7-	7-
6a	6a	6a	6a
7-	7-	7-	
6a	6a	6a	
7-	7-		
6a	6a		
7-			
6a			

#### a. *Hegoaldeko izendatzea*

- Hamarreko txikia
- Zortziko txikia
- Seiko txikia
- Lauko txikia

#### b. *Ifarraldeko idazkera*

13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A
13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A
13 (7+6)A	13 (7+6)A	13 (7+6)A	
13 (7+6)A	13 (7+6)A		
13 (7+6)A			

b. *Ifarraldeko izendatzea*

- Bost puntuko txikia
- Lau puntuko txikia
- Hiru puntuko txikia
- Bi puntuko txikia

**OHAR OROKORRA**

Lehenengo multzo honetan batez ere, doinua eta melodia funtsean aldatu gabe, espresibitatearen amorez, sartzen dira estrofa barruan zenbait aldaketa, (hala nola monorrimotik plurirrimora igaro, edota errepikak egin, edota errimak gurutzatu, edota errimak besarkatu eta abar), diskurtsu poetikoa eta intentzioa aldatzen dutenak. Hona zenbait eredu kontuan edukitzekoak.

1. Bizkaiko zortziko txikia, melodia eta plurirrimoan erabiltzen duena, bi puntu sartuz:

“Asko dira gaur eta/ leh bere zirean,	13A
antzak ez diñotsenak/ zer ete direa.	13A
Iruditxu bategaz/ sartu yat gogoan	13B
argitutea egi au/ zortziko bertsoan” (15)	13B
“Maritxu nora zoaz/ eder galant hori	13A
iturrira Bartolo/ nahi baduzu etorri	13A
Iturrian zer dago/ ardotxo txuria...	13B
biok edango dugu/ nahi duzun gutzia” (15)	13B

2. Errepikak eta bihurkiak ere aipatzekoak dira. Zenbait kantu eza-gun aipa ditzagun.

– Lauko txiki errepikaduna:

“Iruten ari nuzu,/ kilua gerrian,	13A
<i>ardura dudalarik (bis)/ nigarra begian” (16)</i>	13A

– Zortziko txiki errepikaduna, plurirrimoa:

“Bautista Basterretxe/ mutiko pijua,	13A
<i>neri gurdi ardatza (bis)/ ostuta dijua.</i>	13A
Beltzak eta txuriak/ izango dituzu	13B
<i>neri gurdi ardatza (bis)/ emate ez baidazu” (17)</i>	13B

(15) E.M. AZKUE, “Astoak... arrantza”, in “S. ONAINDIA, *Milla Euskal-Olerki Eder*, “Karmeldar Idaztiak”, Larrea-Amorebieta, 1954, 274-275. or.

(16) KKK, 185. or.

(17) “Mariya”, “M. Mendiburu”, Bordeaux, (s/d), 54-55. or.

3. Zortziko txikia, hasiera *kopla-eran* emanik

Bortian Ahuzki	6a
Ur onak osoki...	6a
Lili bat ikusi dut	7a
baratza batean...	6a

Doinu bera dute baina lehenengoak puntuduna egiten du hasierako hemistikioan.

## 4. Gurutzatuak:

“Lo! lo! nere maitea;	7a
Lo! ni naiz zurekin.	6b
Lo! lo! paregabea,	7a
nigarrik ez egin.	6b
Goizegi da munduko	7c
esnatzen bazira.	6d
Nigarretan urtzeko	7c
baduzu denbora” (18)	6d

## 5. Besarkatuak, errimak abba erako lokeran kokatuak:

“Berritzen ar’iz, Xuria	8a
Nitan, egun guzietz,	7b
Noizten begietz	5b
Egin erautan zauria;	8a
Et’ene bihotz gaxoak	8c
Higanik, maita-sari,	7d
Herskailu ordari,	5d
Zitin tragasa-xiloak” (19)	8c

(18) Dr. LARRALDE, “Lo! Lo! Nere maitea”, KKK, 245. or.

(19) A. OIHENART, *Proverbes et poesies basques* (1657-1664), “Izpegi”, Baigorri, 1992, 57. or.

## 4. MOLDE XEHEAK

## 4.1. TESTUAK

a. *Hegoaldeko idazkera*

“Izan zaite beti,	6-
Jesus maitea,	5a
nere bihotzaren	6-
Jaun da Jabea” (20)	5a
“Begira, Jauna	5-
ez nadin gal:	4a
erakuts beni	5-
bihotz zabal” (21)	4a

b. *Ifaraldeko idazkera*

“Uztazu hurrantzera, amore maite;	11A
Orai partitzeko damu ginate” (22)	11A
“Amoriak: -Othoi, parti gitezen,	11A
Jendiak diradela hasi bekhaitzen.	11A
Laidoz hartu gabe parti gitezen,	11A
Jendek irrigarri gerta ezkiten” (23)	11A
“Begira; Jauna, ez nadin gal:	9A
erakuts neri bihotz zabal” (24)	9A

## 4.2. IZENDATZEA

Orokorki multzo bereko beste moduluak bezala izenda daitezke: lauko, seiko eta abar Hegoaldean; bi puntuko edo lau puntuko eta abar Ifaraldeko usarioan.

Baina, silaben kopuruak ezartzen duen bereizketa, lehen handia, er-taina, txikia esanez izendatu ditugunak, oraingo hauek nola esan ez da

(20) Eliz kantu ezaguna.

(21) X. IRATZEDER-G. LERCHUNDI, *Salmoak*, in “Ezkila”, Urt. 1968, 61. or.

(22) B. DECHEPARE, *Linguae Vasconum primitive*, in “Edili”, Donostia, 1968, “Amorosen disputa”, 104. or.

(23) ID., *ibid.*

(24) X. IRATZEDER-G. LERCHUNDI, *ibid.*

erabiltzen izen ezagunik, nahiz eta “molde xeheak” esanez izenda daitezkeen, hala nola: lauko xehea, (6+5) silabez; lauko xehea (5+4) silabez.

Ifarraldekoek ere, lehengo sistemari jarraituz, izenda ditzakete modulutxo hauek bi, lau puntuko xehea esanez, hala nola bi puntuko xehea 11 silabez; lau puntuko xehea 11 silabez; bi puntuko xehea 9 silabez.

## II. MULTZOA

### HEMISTIKIO BERTINAK

1. *Ezaugarri teknikoak*: lerro jakinak, isosilabikoak, hemistikio bertinak silabez, eta monorrimoak.

2. *Izendatzea*: hemistikiorik markatzen ez bada, bertin idazten da hegoaldean eta ifarraldean. Beraz, bertin izendatu beharko lirateke. Horrenbeste lerroko berdina: biko, hiruko, lauko, bosteko berdina... Eta zehazteko, zenbat silabako bertinak diren esanez egingo litzateke.

Hemistikioak markatzen badira, orduan esango litzateke: hegoaldean, lauko, seiko, zortziko, hamarreko berdina, honenbeste silabez eta honenbeste puntuz. Ifarraldean, berriz, honenbesteko berdina, honenbeste silabez.

Beraz, hemen ere bertso-lerroak markatzen dira lehenik, gero “bertinak” izatea, hau denez multzoaren ezaugarri jakina, eta gero xehetasun beharrezkoenak, zenbat silaba eta hegoaldean zenbat puntu ere bai hemistikio puntugabeak egon daitezkeenez.

3. *Eredu erabilienak*: lehenengo multzokoak baino gutxiago dirateke eskuarki. Hala ere, bada horrelakorik, euskal kantutegian batez ere.

## 1. HEMISTIKIOAK BEREZI GABE IDATZIAK (H) eta (I)

### 1.1. TESTUAK

“On bihurtu du bidea,	8a
otoitz-giro nahigabea,	8a
uste on bakardadea” (25)	8a

“Mehetegiko xakurra	8a
zangoz, errainez makurra,	8a
berga bat luze muturra,	8a
larrutik hurbil hezurra,	8a
urte guzian barura,	8a
zeren den toki xuhurra” (26)	8a
“Arnoa zuten Bordalekotik,	10A
edo bertzela taula zokotik,	10A
agollatua ongi uretik;	10A
edan dezagun beraz gogotik,	10A
orditziaren beldurra gatik,	10A
horrek ez gaitik joko burutik” (27)	10A

## 1.2. IZENDATZEA

- Hiruko berdina zortzi silabez
- Seiko berdina zortzi silabez
- Seiko berdina hamar silabez

Berdin idazten direnez Ifarraldean eta Hegoaldean, izen bera behar lukete eraman. Eta hemen proposaturiko izenetan, kontuan hartzen dira: zenbat bertso lerro dituen; gero, berdintasuna, multzoaren ezaugarria; eta azkenik silaben kopurua, ereduak bereizteko.

## 2. HEMISTIKIOAK BEREZIRIK IDATZIAK

### 2.1. TESTUAK

#### a. Hegoaldeko idazkera

“Agur, Jainkoaren	6-
Ama, maite, ederra,	6a
zeruko atea,	6-
itsasoko izarra” (28)	6a
Zatoz zintzoen barnera,	8-
Espiritu sortarazle,	8a

(26) KKK, 193. or.

(27) KKK, “Ezpeleta herrian”, 221. or.

(28) *Orduen Liturgia*, 622. or.

bete graziaz bihotzak, Zu baizaituzte egile” (29)	8- 8a
--	----------

b. *Ifarraldeko idazkera*

“Agur, Jainkoaren Ama, maite, ederra; zeruko atea, itsasoko izarra”	12 (6+6)A 12 (6+6)A
“Zatoz, zintzoen barnera, Espiritu sortarazle; bete graziaz bihotzak, Zu baizaituzte egile”	16 (8+8)A 16 (8+8)A

## 2.2. IZENDATZEA

a. *Hegoaldean*

- Lauko berdina sei silabez eta bi puntuz
- Lauko berdina zortzi silabez eta bi puntuz

b. *Ifarraldean*

- Biko berdina hamabi silabez.
- Biko berdina hamasei silabez.

## III. MULTZOA

### KOPLA ERA

1. *Ezaugarri teknikoak*: lerro jakinak, anisosilabikoa, monorrimoa. Silaben konbinaketan, hemistikio laburrak bakarrik erabiltzeko joera agertzen da, hemistikio luzea behin bakarrik aipatzen delarik.

2. *Izendatzea*: koplak hitza hartu daiteke multzo hau izendatzeko. Koplak deitzen zaio eske-bertsotan erabili ohi den moduluari, eta beraz da horrelako multzoaren funtsezko eredu eta paradigma, nahiz eta izen orokorra ere baden, batez ere ifarraldean (koblakaria) eta Bizkaian bi puntuko eske-bertsok. Hala ere, esanahi zehatza har dezake euskal metrikaren barruan, hemistikio laburrak jarraian erabiltzeko joera markatzen duena hain zuzen.

---

(29) *Ibid.*, 594. or. Orixek erabili moldea gorazarreetan.



3. *Eredu erabilienak*: agian molde nagusikoak dira, besteak ez hainbeste. Molde berdinekoak ditu hasierako eta bukaerako hemistioak. Baina tarteko hemistio puntugabeak ematen dio berezitasuna, arnasa, diskurtsu poetikoa lasaituz eta esanahitsu bihurtuz.

## 1. KOPLA

### 1.1. TESTUAK

#### a. *Hegoaldeko idazkera*

“Eder zeruan izarra,  
erredaldian lizarra.

Etxe hontako nagusi jaunak  
urre gorritz du bizarra” (30)

“Usa polit bat, zer pena!  
ezer txarrik ez zuena;

bihotz oneko begi zabala  
borondatia diena,  
herrian zen ederrena,  
arrosa zirudiena” (31)

“Bertsuak jartzen naiz hasi,  
kopiatuaz ta guzi,  
nahi dituenak ikasi;

Afrika aldera oraingo aldian  
gazteri haundiak doazi;  
diote adierazi,  
ez dela joan behar ihesi;  
amak negarrez daudezi” (32)

#### b. *Ifarraldeko idazkera*

“Eder zeruan izarra,  
erredaldian lizarra.

Etxe hontako nagusi jaunak urre gorritz du bizarra”

---

(30) M. LEKUONA, *Literatura oral vasca*, in “Idaz-lan guztiak”, “Karadaberaz bilduma”, 22. z., 1. t., “Aozko Literatura”, Gasteiz, 1978, 343. or.

(31) *Bertsolariya* (1931-1932), “Makazaga”, Erreterria, 55. or.

(32) A. ZAVALA, *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*, in “Auspoa”, 77-78. zz., 76. or.

“Uso polit bat, zer pena!  
 ezer txarrik ez zuena;  
 bihotz oneko begi zabala borondatia diena,  
 herrian zen ederrena,  
 arrosa zirudiena”

“Bertsuak jartzen naiz hasi,  
 kopiatuaz ta guzi,  
 nahi dituenak ikasi;  
 Afrika aldera oraingo aldian gazteri haundiak doazi;  
 diote adierazi,  
 ez dela joan behar ihesi;  
 amak negarrez daudezi”

## 1.2. ESKEMA METRIKOAK

### a. *Hegoaldeko idazkera*

		8a
8a	8a	8a
8a	8a	8a
10-	10-	10-
8a	8a	8a
8a	8a	8a
	8a	8a
		8a

### b. *Ifarraldeko idazkera*

		8a
8a	8a	8a
8a	8a	8a
18a	18a	18a
8a	8a	8a
	8a	8a
		8a

## 1.3. IZENDAPENA

Bi usarioetan berdin, koplak hitzaren bidez izendatzen direnez, bietan berdin izan litekeena.

- Kopla
- Kopla nagusia
- Kopla luzea

## 2. KOPLA ERTAINA

### 2.1. TESTUAK

“Nere senar tontozko,	7a
arto-jale aundizko:	7a
zazpi talo behar ditu	8-
otorduan jateko” (33)	7a

### 2.2. IZENDAPENA

Bi usariotan berdin, aurrekoan esan dugunaren arabera.

– Kopla ertaina

## 3. KOPLA TXIKIA

### 3.1. TESTUAK

“Hor goian etxea,	6a
jo daigun atea;	6a
gizonak bentanara	7-
nekez irtetzea!” (34)	6a

### 3.2. IZENDAPENA

Bi usariotan berdin, gorago esandakoaren arabera.

– Kopla txikia

---

(33) A. ZATARAIN, *ibid.*, 693. or.

(34) *ID.*, *ibid.*

## IV. MULTZOA

### PUNTUAK MOLDEA

1. *Ezaugarri teknikoak*: Ierro jakinak, anisobilabikoak, monorrimoak, hiru hemistikio-mota, eta 6A estikoa bost, lau eta hiru aldiz errepikatzeko moldea eta abilezia.

2. *Izendatzea*: puntu anitz edukitzeak markatzen du multzo honen bereiztasuna. Eta alderdi hau aipatzea izan da horrelako moldeak izendatzeko erabili izan den hitza. Eta izen egokia eta eroso dirudi honek gure sailkapenerako.

3. *Eredu erabilienak*: Bederatzi eta zortzi puntukoak dira aipatuenak bertsolaritzaren esparruan. Sei puntukoa gehitzen diogu, molde bereko ezaugarriak dituelako.

Bestalde, gaur egungo bertsolariek badituzte zenbait estrofa bederatzi puntukoak deitzen dituztenak: puntuen ugaritasuna dute gogoan, noski. Hauek izenda litezke “bederatzi puntuko berria” esanez. Hemen sartuko genuke, baita ere, ifarraldeko “Iduzki denian” kantu ezaguna.

## 1. PUNTUAK MOLDEA

### 1.1. TESTUAK

“Ostegun joandarian  
hamabost Hernanin,  
betroi baten tratua  
genuen egin;  
Inazio saltzaile,  
erostuna Fermin;  
hemeretzi ezkutu  
genion eragin;  
sabelian du min,  
inork ase ezin,  
artuari muzin,  
ez du nahi edozin;  
atzetik behar ditu  
zazpi medezin” (35)

---

(35) A. ZAVALA, *Xenpelar bertsolaria*, in “Auspoa”, 88-89-90. zz., “Betroyarenak”, Donostia, 1969, 295. or.

“Frantxisku zer dakarrek  
 hik gure herritik?  
 aspaldian ez diat  
 hango berririk.  
 Zerbait jakin nahi nitek  
 alderdi hartatik:  
 haserria niagok,  
 ez dek milagrorik.  
 Ez diat egunik,  
 ez eta arratsik,  
 sinista nazak hik,  
 pentsamentuz etxera  
 joan gabetanik” (36)

“Aizazu, Suantxa,  
 zer modu daukazu?  
 Pobre eta alegre,  
 zer esain degu!  
 Soka bat ekatzu;  
 lotu bear zaitugu,  
 baina ez izutu;  
 agintzen digutena  
 ein bearko degu” (37)

b. *Ifarraldeko idazkera*

“Ostegun joandarian hamabost Hernanin,  
 betroi baten tratua genuen egin;  
 Inazio saltzaile, erostuna Fermin;  
 hemeretzi ezkutu genion eragin;  
     sabelian du min,  
     inork ase ezin,  
     artuari muzin,  
     ez du nahi edozin;  
 atzetik behar ditu zazpi medezin”

“Frantxisku zer dakarrek hik gure herritik?  
 aspaldian ez diat hango berririk.  
 Zerbait jakin nahi nitek alderdi hartatik:  
 haserria niagok, ez dek milagrorik.

(36) J. DORRONSORO, *Bertsotan, 1789-1936*, “Elexpuru”, Bilbo, 1981, 26. or.

(37) ID. *ibid.*, 24. or.

Ez diat egunik,  
 ez eta arratsik,  
 sinista nazak hik,  
 pentsamentuz etxera joan gabetanik”

“Aizazu, Suantxa, zer modu daukazu?  
 Pobre eta alegre, zer esain degu!

Soka bat ekatzu;  
 lotu bear zaitugu,  
 baina ez izutu;  
 agintzen digutena ein bearko degu”

## 1.2. ESKEMA METRIKOAK

7-	7-	6-
6a	6a	6a
7-	7-	7-
5a	5a	5a
7-	7-	
6a	6a	
7-	7-	
6a	6a	6a
6a	6a	6a
6a	6a	6a
6a		
7-	7-	7-
5a	5a	5a

### b. *Ifarraldeko idazkera*

13A	13A	12A
12A	12A	12A
13A	13A	
13A	13A	
6a	6a	6a
6a	6a	6a
6a	6a	6a
6a		
12A	12A	12A

### 1.3. IZENDAPENA

Bi usarioetan berdin, gorago esan dugunari jarraituz. Beraz izango litzateke:

- Bederatzi puntukoa
- Zortzi puntukoa
- Sei puntukoa

*Oharra:* Gogora dezagun I. multzoan, ifarraldekoek “puntu” hitzarekin egiten dutela beren izendatzea. Bereizketa, hala ere, nahiko argi dago, I. multzoan zehaztu egiten denez zernolako hedadura duen bertso-lerroak: handia, ertaina, txikia, xehea. Hemen berriz zenbat puntu dituen estrofak, ez da besterik zehazten.

## 2. BEDERATZI PUNTUKO BERRIAK

### 2.1. TESTUAK

“Gustagarria gertatu zait gaur  
albotik datorren hitza  
hoiek daukate gaur eguneko  
etorkizunaren giltza  
hargatik nere amodioan  
nai nuke berentzat mintza  
beren artean dagoelako  
gure semeen emaitza  
sarri hoiekin konpondutzea  
gertatuagatik gaitza  
denok zaletu gabiltza  
neurria hartu al balitza  
al dan ondoen bete nai nuke  
eskatzen duten baldintza  
emakumeei begira baita  
gaur Lopetegin bizitza” (38)

“Itsaso hori dago zatarra  
nere oihua eta negarra  
untzi bat horra nun azaltzen den  
nik behar nuen izarra (bis)

---

(38) J. LOPATEGI, *Bertsolari Txapelketa 1982, Jagon bilduma*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 304. or.

oraintxe sartu zait arra  
 berriz piztutzeko garra  
 baina hau da zoritxarra  
 ikusi naute aurrean eta  
 ai hau destino baldarra  
 laguna ondotik pasatu eta  
 nik hemen ito beharra (bis)” (39)

b. *Ifarraldeko idazkera*

“Gustagarria gertatu zait gaur albotik datorren hitza  
 hoiek daukate gaur eguneko etorkizunaren giltza  
 hargatik nere amodioan nai nuke berentzat mintza  
 beren artean dagoelakogure semeen emaitza  
 sarri hoiekin konpondutzeagertatuagatik gaitza  
 denok zaletu gabiltza  
 neurria hartu al balitza  
 al dan ondoen bete nai nukeeskatzen duten baldintza  
 emakumeei begira baitagaur Lopetegin bizitza”

“Itsaso hori dago zatarra  
 nere oihua eta negarra  
 untzi bat horra nun azaltzen den nik behar nuen izarra (bis)  
 oraintxe sartu zait arra  
 berriz piztutzeko garra  
 baina hau da zoritxarra  
 ikusi naute aurrean eta ai hau destino baldarra  
 laguna ondotik pasatu eta nik hemen ito beharra (bis)”

---

(39) X. AMURIZA, *ibid.*, 317. or.



## 2.2. ESKEMA METRIKOAK

10-	10A
8a	10A
10-	10-
8a	8a (bis)
10-	8a
8a	8a
10-	8a
8a	10-
10-	8a
8a	10-
8a	8a (bis)
8a	
10-	
8a	
10-	
8a	

b. *Ifarraldeko idazkera*

18A	10A
18A	10A
18A	18A
18A	8a
18A	8a
8a	8a
8a	18A
18A	18A (bis)
18A	

## 2.3. IZENDAPENA

Asko ugaldu dira horrelako moduluak bertsolarien artean txapelketen eraginez gehienbat.

Bederatzi puntukoa deitzen diote bertsolariek.

Har liteke “bederatzi puntuko berria”, “zortzi puntuko berria”, horrelako estrofa izendatzeko.

## V. MULTZOA

### HAUTSIAK

1. *Ezaugarri teknikoak*: lerro jakinak, anisosilabikoak, bertso-lerro ereduak nahasian, eta inoiz plurirrimoak.

2. *Izendatzea*: alderdirik aipagarriena dute estrofok hautsi egiten dutela molde jakin bat, moldeak nahastuz edo/eta errimak ere aldatuz. Horregatik, estrofa hautsiak dei dakieke horrelakoei.

Alde orokorra deituko litzateke estrofa-mota zein eredutakoa den aipatuz; eta alde berezian hautsia dela esanez.

3. *Eredu erabilienak*: bertsolaritzakoak eta kantutegietakoak aipatuko genituzke batez ere.

## 1. HAUTSIAK DERITZATEN MOLDEAK

### 1.1. TESTUAK

“Iparragirren bozian ditut  
bertso berriak paratu  
Gipuzkoako euskal erria  
al-banezake nombratu;  
asko ezkongai daude,  
gustokorikan gabe,  
ezin dutela topatu;  
projimuari erakustia  
ez da izango pekatu” (40)

“Jesukristori kendu ezker  
pekatuakin bizitza,  
baldin ez badet negar egiten  
harrizkoa det bihotza;  
guztiok lagun,  
kanta dezagun  
bere penazko heriotza” (41)

“Iya guriak egin du,  
badegu zeinek agindu;

(40) A. ZAVALA, *Xenpelar bertsolaria*, ibid., 167 or.

(41) A. BASTERRECHEA, *Jesu-Christo gure Jaunaren Passioa*, in J. Urquijo, *Del teatro litúrgico en el País Vasco. “La Passion Trobada” de Diego de San Pedro (representada en Lesaca en 1566)*, RIEV, 22 (1931), 211. or.

ez oraindik umildu  
elkarrengana bildu;  
gerra nahi duen guzia,  
berari kendu bizia!” (42)

“Albaiteruen sala  
demonio hartan,  
demoniozko estropezu bat  
egin nuen bertan.  
Demonioak hemen,  
demonioak han,  
demonioak nonahi  
gorputzaren bueltan.  
Demonioak sasoi zeukaten  
demonioetan” (43)

“Urrikaldu nintzen ta  
egin nion kura (bis)  
Etxian zen botika,  
gatza eta ura.

Joxe Bentura:  
ez gehiago etorri  
gure konbentura” (44)

“Aizak, Mañuel maiñontzi,  
hurrengorako goraintzi,  
ez al hakiken hor pipa hartzia  
ez zela lizentzi?

Jenio txar hoiek utzi,  
bestela hezurak hautsi.  
Giza legea nola behar den  
ezin erakutsi!” (45)

b. *Ifarraldeko idazkera*

“Iparragirren bozian ditut bertso berriak paratu  
Gipuzkoako euskal erria al-banezake nombratu;  
asko ezkongai daude,  
gustokorikan gabe,

---

(42) A. ZAVALA, *ibid.*, 410. or.

(43) A. ZAVALA, *Txirrita*, *ibid.*, 32. or.

(44) Herrikoia, J.J. Mitxelenari Oartzunen jasoa.

(45) M. LEKUONA, *Literatura oral vasca*, *ibid.*, 382. or.

ezin dutela topatu;  
projimuari erakustia ez da izango pekatu”

“Jesukristori kendu ezkeru pekatuakin bizitza,  
baldin ez badet negar egiten harrizkoa det bihotza;  
guztiok lagun,  
kanta dezagun  
bere penazko heriotza”

“Iya guriak egin du,  
badegu zeinek agindu;  
ez oraindik umildu  
elkarrengana bildu;  
gerra nahi duen guzia,  
berari kendu bizia!”

“Albaiteruen sala demonio hartan,  
demoniozko estropezu bat egin nuen bertan.  
Demonioak hemen, demonioak han,  
demonioak nonahi gorputzaren bueltan.  
Demonioak sasoi zeukaten demonioetan”

“Urrikaldu nintzen ta egin nion kura (bis)  
Etxian zen botika, gatza eta ura.

Joxe Bentura:  
ez gehiago etorri gure konbentura”

“Aizak, Mañuel maiñontzi,  
hurrengorako goraintzi,  
ez al hakiken hor pipa hartzia ez zela lizentzi?  
Jenio txar hoiek utzi,  
bestela hezurak hautsi.  
Giza legea nola behar den ezin erakutsi!”

## 1.2. ESKEMA METRIKOAK

10-	10-	8a	7-	7-	8a
8a	8a	8a	6a	6a	8a
10-	10-	7a	10-	7-	10-
8a	8a	7a	6a	6a	6a
7b	5b	8b	7-	5a	8a
7b	5b	8b	6a	7-	8a
8a	8a		7-	6a	10-
10-			6a		6a
8a			10-		
			6a		

b. *Ifarraldeko idazkera*

18A	18A	8a	13A	13A	8a
18A	18A	8a	16A	13A	8a
7b	5b	7a	13A	5a	16A
7b	5b	7a	13A	13A	8a
8a	8a	8b	16A		8a
18A		8b			16A

## 1.3. IZENDAPENA

a. *Hegoaldean*

- Zortziko handi hautsia
- Seiko handi hautsia
- Seiko berdin hautsia
- Hamarreko txiki hautsia
- Zortziko txiki hautsia
- Kopla bikoitz hautsia

b. *Ifarraldean*

- Lau puntuko handi hautsia
- Hiru puntuko handi hautsia
- Seiko berdin hautsia
- Bost puntuko txiki hautsia
- Lau puntuko txiki hautsia
- Kopla bikoitz hautsia

## VI. MULTZOA

## BEREZIAK

1. *Ezaugarri teknikoak*: lerro jakinak, anisosilabikoak, plurirrimoak, moldeak nahasian, hamar silabatik (10A/ 10-) goragoko hemistikioak ere bai tartean eta 7-/6-tik beheragokoak ere bai; eta etenak leku desberdinetan.

2. *Izendatzea*: moldeak nahasian da haren ezaugarri jakinetako bat, eta gainera, bertso-lerroen luze-laburra, eta errimen zenbakia. Beraz, ho-

nela izenda daitezke: honenbeste lerroko “nahasi-berezia” eta plurirrimoa (nahiz monorrinimoa)

3. *Eredu erabilienak*: hauek ere bertsoaritzan eta kantutegian dauzkagu batez ere.

Badirudi estrofa-eredua erdal kanturen batek ezartzen duela, ahotan dabilelako noski.

## 1. BEREZIAK DERITZATEN MOLDEAK

### 1.1. TESTUAK

“Maite bat maitatzen den maitagarria;  
begi ederra du ta guztiz argia;  
daukat urruti,  
baina ezin kendu det buruti  
haren itxura.  
Saldu ahal baliteke pisura  
urriaren truke,  
nork erosi faltako ez luke” (46)

“Iragan besta biharamunian,  
berek dakiten xoko batian.  
Lau andre hirur mutxuridin, bat alarguna, jarriak itzalian.  
Harri xabal bat belaunen gainian,  
ari ziren, ari ziren trukian” (47)

“Nagusi jauna, hauxe da lana,  
amak bialtzen nau berorregana.  
Ai! bialduko bazinduke maiz,  
zu ikusita kotsolatzen naiz.  
Sinista zazu,  
oso txoraturikan naukazu,  
horren polita nola zera zu?” (48)

“Bertzek erran bai-tute nik baino lehen:  
anitz aditu dela anitz ikasten.  
Uste dut on den.  
Nik dakidan bezala guziek arren

(46) S. ONAINDIA, *Milla Euskal-Olerki Eder*, ibid., 382. or.

(47) KKK, “Iragan besta biharamunian”, 223. or.

(48) I. BIZKARRONDO, “Bilintx”, *Bertso ta lan guztiak*, in “Auspoa”, 12. z., Zarautz, 1961, 77. or.

jakin dezaten.

Beraz, aipa dezagun Maria nor den” (49)

Bizkaia ta Aragoa  
gero Castilla;  
diferentziarikan  
ez dute milla,  
leku zirtzilla.  
Nere alojatzeko  
lasto txar billa,  
umil umilla.  
Han bizi nahi duena  
ito dedilla” (50)

## 1.2. ESKEMA METRIKOAK

12A	11A	10A	12A	7-
12A	11A	11A	12A	5a
5b	20A	10B	5a	7-
10B	11A	10B	12A	5a
5c	11A	5c	5a	5a
10C		10C	12A	7-
5d		10C		5a
10D				5a
				7-
				5a

## 1.3. IZENDAPENA

- Zortziko “nahasi-berezia”, plurirrimoa.
- Bosteko “nahasi-berezia”, monorrimoa.
- Zortziko “nahasi-berezia”, plurirrimoa.
- Sei puntuko “nahasi-berezia”, monorrimoa (I)
- Hamarreko “nahasi-berezia”, monorrimoa (H)

(49) J.B. ELIZANBURU, in S. Onaindia, *Milla Euskal-Olerki Eder*, ibid., 542. or.

(50) N. ORMAETXEA, “Orixe”: Erderaz *seguidilla* esaten zaion ahapaldi edo estrofak eraontaratsu jotzen du, ta euskeraz ba ditugu beste bertso batzuk ezagunak”. In “Oraindafioko euskal-neurtitzak (1)”, *Idazlan guztiak*, III. t., “Artikuluak eta saiakerak”, Etor, Donostia, 1991, 340. or.

#### 4. AZKEN ZEHAZTAPENAK

Estrofak bakarrik modulu metriko guztiak agortzen ez dituen beza-la, guk hemen aurkezturiko eredu estrofikoek ere ez dituzte agortzen estrofa-mota guztiak. Aukera bat egiten dugu eta sistematze bat eskaintzen, lagungarri on gertatuko delakoan.

Gaur egun egindako sailkatze-lana da hau; eta kantua batez ere go-goan edukiz eginikoa gainera.

Gaur egun eginiko lana dela esatean, adierazi nahi dugu, oraingo egoera izan dugula begiaurrean, hau da, poesia eskuarki estrofismotik urruti dabilen garaikoa. Eta bestalde, bertsolaritzak, pastoralak eta kantugintzak ia bakarrik estrofak erabiltzen dituzten unean egina dela gure lan hau. Izan ere, kantua baita gehienik agintzen duena, ez bakarrik euskal estrofen erabileran, baita ikerkuntzan eta dibulgazioan ere azken urteotan.

Gauza sinkroniko bat eskaintzen dugu oraingoz. Badaude lan parzialak estrofei buruzkoak autore jakinei buruzkoak, oso kontuan hartze-koak. Baina agian ongi landu gabe daukagu estrofen aurkezpen diakroniko bat, zehaztasun egokiek hornitua, euskal literaturaren historiako unek bereiziz.

Hala ere, badugu irizpide nahiko onarturik ikuspegi diakroniko hau dela eta. Adibidez:

– Ez direla autore asko izan estrofen alderdi fono-estilistikoak sistematikoki landu dituztenak: mugimendu eta autore banakak izan direla hori egin dutenak, inguruko erdal literaturekin erkatuz gero behintzat.

– Baina nahiko ugaria dela estrofa-moten altxorra, batez ere mugaz bi aldetakoa kontuan hartzen bada.

– Garrantzizkoak direla guretzat zenbait mugimendu estrofismotik begiratu eta: ernazimendu-ondoko poetak (Etcheberri, Oihenart); antzerkigileak (Barrutia, S. Baroja); XIX. mendeko poeta-kantugileak; “Olerti” inguruko olerkariak (Lizardi, Lauaxeta); eta berriro estrofa herrikoietan aritu zirenak (S. Mitxelena, Aresti...) Eta gaurko poesian dagoen estrofarik eza.

– Gero itzulpenen eragina legoke markatu beharra, bai Frantziako eraginpean eginikoetan (S. Monho, J.B. Camoussarri) bai Espainikoan (“Jautarkol”, “Satarka”, “Orixe”...)

– Kantutegietan oinarri hartzeak segurantzia bat ematen digu; ez eredu denak hartzen ditugulako, baizik eta eredu hauekin, eta beren aldaerekin, beste asko ere hartzen ditugulako; gaurko sentiberatasunari ai-



tormen bat egiten diogulako; eta euskal estrofismoaren ikuspegi nahiko zabala eta berarizkoa ematen delako. Guzti hauekin hurbiltzea nahi genuke horrelako lan bat hastean aurrean dituzun helburuetara: euskal estrofen sistematizazio bat eta izendatze bat lortzera.